

# Liburuak, aldizkariak eta irakurleak XX. mendeko Euskal Herrian. Euskal testuak eta irakurketa ohiturak (1919-1936)

(Books, journals and readers in the Basque Country in  
Twentieth Century. Texts in Basque language and reading  
costumes (1919-1936))

Díaz Noci, Javier  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Gizarte eta komunikazioen Fakultatea  
Sarriena auzoa  
48940 Leioa

BIBLID [1136-6834 (1998), 27; 61-85]

---

*XX. mendeko lehen herenean, 20.eko eta 30.eko hamarkadetan batik bat, euskaldunen irakurtze-ohiturak nabarmenki aldatu ziren. Literaturari esker eta kazetaritzari esker gertatu zen hori. Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren sorrerak ere izan zuen eraginik fenomeno hartan. Testu honetan zenbait datu berri emanez, eta argitalpenen (liburuen eta aldizkarien) historia eginez, euskaldunek nola bilbotzen zuten errealitatearen eta gizartearen errepresentazioa (pentsamoldea, alegia) aztertzen da, bi ikuspuntutatik: ekoizpenaren aldetik eta jasotzearen aldetik, autoreen eta irakurleen aldetik hain zuzen ere.*

*Giltz-Hitzak: Liburuak. Aldizkariak. Euskara. Kazetaritza. XX. Pentsamoldea. Kultur historia.*

*En el primer tercio del siglo XX, sobre todo en las décadas de los años 20 y 30, se produce un cambio sustancial en los hábitos lectores de los vasconparlantes. Ello sucedió gracias a la literatura y al periodismo. El nacimiento de la Sociedad de Estudios Vascos y de la Academia de la Lengua Vasca tuvieron también mucho que ver en este fenómeno. En esta investigación, en la se aportan algunos datos hasta ahora inéditos, a través de la historia de las publicaciones (libros y publicaciones periódicas), se pretende reconstruir cuál era la representación de la realidad y la sociedad que construían los vasconparlantes (su modo de pensamiento, en definitiva), desde dos puntos de vista: el de la producción y el de la recepción, el del autor y el del lector.*

*Palabras Clave: Libros. Periódicos. Euskara. Periodismo. XX. Historia cultural.*

*Au cours du premier tiers du XXème siècle, surtout pendant les années 20 et 30, un changement substantiel dans les habitudes scolaires des gens parlant le basque se produit grâce à la littérature et au journalisme. La naissance de la Société d'Etudes Basques et de l'Académie de la Langue Basque contribue également beaucoup à ce phénomène. Au cours de cette recherche, dans laquelle on peut trouver certains détails jusqu'alors inédits, on prétend reconstruire, à travers l'histoire des publications (livres et publications périodiques), quelle était la représentation de la réalité et la société que construisaient les bascophones (en définitive, leur façon de penser), à partir de deux points de vue: celui de la production et celui de la réception, celui de l'auteur et celui du lecteur.*

*Mots Clés: Livres. Journaux. Euskara. Journalisme. XX. Histoire culturelle.*

## SARRERA

Azken urteotan, nahikoa indar hartu duen histori korronte bat kultur historia izan da, edo, zehazkiago esanda, giza pentsamoldeen errepresentazioen ikerketa. Pentsamoldeen historia dugu, alde batetik, ideiak eta beren islak aztertzen baitira, eta giza historia ere bada, beste aldetik, gizataldeak baititugu protagonista. Bide horretatik abiatu dira Europako zein Ameriketako ikerle asko eta asko, emaitz oparoak lortu dituztelarik. Haien oihartzuna guregana ere ailegatu da.

Horietako bat, historialari askorentzat aintzindaria dena, Roger Chartier da. Dударik gabe, Frantzia ezetik, Europa osoan ere eremu berriak jorratu ditu pentsamoldeen historian. Eskola oso bat sortu du berak, eta azken bolada honetan, kultura idatziari buruzko ikerketa asko egin eta argitaratu dira. Ez ditugu hemen bere lan guztiak aipatu behar, baina batez ere *El mundo como representación* liburuan<sup>1</sup> bildutako entseguak eta *Historia Social* aldizkariaren 17. zenbakian jasotako bi artikuluak ezin erakargarriagoak iruditu zaizkigu<sup>2</sup>. Azken hauetan, Chartierrek proposatzen du kulturaren giza historiatik gizartearen kultur historiara igarotzea.

Ez dagokigu, ordea, Chartierren eta bere eskolaren ezaugarri nagusiak azaltzea. Gure gaiari heldu aurretik, hala ere, zenbait burutapen agertu nahi genuke: alde batetik, interesgarri eta erakargarri iruditu zaigula ekoizpen idatzia -kasu honetan, euskarazkoa- aztertzea, euskal letretarako ezin garrantzitsuagoak izan ziren mende honetako 20. eta 30.eko hamarkadetan (gero adieraziko ditugun arrazoiengatik aukeratu dugu epe hau), liburuak ezetik, aldizkariak ere abiapuntuztat hartu ditugularik. Beste alde batetik, gure ahalegin umila egin nahi genuke geure arlo mugatutik Euskal Herriko historiako ekarpen txiki bat emateagatik. Gure arlo hori, tesian eta hurrengo ikerketa batzuetan landua<sup>3</sup>, euskarazko prentsa eta bestelako komunikabideen historia da. Sinisturik, baina, giza zientzietan disziplina aniztasuna baliabide zilegia eta ballotsua dela, erabaki dugu oraingo honetan euskal testuak eta irakurketa ohiturak aztertzea, Euskal Herriko kulturaren eta gizartearen (kultura ez baita gizartearen errepresentazio bat baino, hau da, bir-aurrezpen bat, pentsamolde jakin batzuetara moldaturik eta arte edo teknika batzuen arabera agerturik) alderdi batzuei buruz zenbait argiska ekar genezake-elakoan. Zenbait datu, gure ustez ezezagunak, emango ditugu. Datu horiek biltzea eta argitaratzea izan da gure asmo nagusia. Heuristikoa bada ere, espero dugu gure lantxo honetan falta den kritika eta sakontasuna gure ondoren etorriko direnek eman behar dutela.

Hautatu dugu garai hori arrazoi batzuegatik. Lehenengoa Euskal Herritik kanpo bilatu behar dugu. Mundu berria hasten da Munduko Lehen Gerraren ondoren: politikoki eta sozialki, ongizate Estatu (*Welfare State*) ezarriko da, alde batetik, eta ideologia ezberdinak ere sortuko dira, totalitarioak kasu batzuetan (Italiako faxismoa, Alemaniako nazismoa, eta abar). Komunikabideei dagokienez, informazioarekin eta iritziarekin batera hirugarren kontzeptu bat agertzen da, interpretazioa, 1921ean Estatu Batuetan sorturiko aldizkari baten eskutik: *Time*.

---

1 CHARTIER, Roger, *El mundo como representación*, Gedisa,artzelona, 1992.

2 "De la historia social de la cultura a la historia cultural de lo social" eta "Las líneas de la Historia Social", *Historia Social*, 17. zenbakia, 1993ko udazkena, 97.-104. eta 155.-157. orrialdeak. Bertan ere beste testu interesgarri bat agertzen da: BURKE, Peter, "La nueva historia socio-cultural", 105.-113. orrialdeak.

3 Gure tesian (*Euskarazko prentsa XX. mendean (1919-1936)*). *Euskal kazetaritzaren sorrera eta garapena*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1992, argitaragabea) euskal komunikabideen historia egin genuen. Ondoren, Gerra ondorengo euskal kazetaritza ere aztertu dugu. Partzialki, bi ikerketa horiek biltzen dira *Euskarazko aldizkari, almanaka eta egutegien errolda (1834-1959)* liburuan, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1994.

Erreportaia sortzen da, gaur ezagutzen dugun bezala behintzat. Masa-komunikazioaren garaia dugu, eta komunikabide berriak ere sortzen dira, irratia adibidez. Euskal Herrian bertan bilatu behar dugu bigarren arrazoa: euskarari eta euskal kulturari behin betiko bultzada eman zieten bi erakunde sortu ziren: Eusko Ikaskuntza bera 1918an eta, haren eskutik, urtebete geroago Euskaltzaindia. Hizkuntzaren Akademia irakurketa sustatzeko ahaleginduko da, bertan aurkitu eta gero arakatuko ditugun zenbait agirik aditzera ematen digutenez. Euskal letretan (sormeneko literaturan zein kazetaritzan) urrezko garaia dugu: izen batzuk baino ez aipatzearren, bi eremutan daudenak, Jose Maria Agirre *Lizardi* eta Esteban Urkiaga *Lauaxeta*. Argitaratze ekoizpena haunditzen da nabarmenki. Aldizkarietarako dagokienez, urte haietan gutxi gora behera 70 izenburu berri agertzen dira<sup>4</sup>. Euskal irakaskuntza ere indartzen da, ikastola batzuk sortzen dira eta umeak hasten dira beren ama hizkuntzan irakaspideak jasotzen. Giro aproposa euskal kultura euskaraz igorri edo transmititu ahal izateko.

## 1. EUSKALTZAINDIA, LIBURUGINTZA ETA KAZETAGINTZA

Aurreko hamarkadetan euskal liburugintza eta kazetagintza hazi bazen ere, 1918tik ekoizpen literarioa ("literario" hitza zentzu zabalean hartuta) nabarmen haunditu zen. Aurreko urteetan zehar garatutako lanari esker euskara eta euskal kultura instituzionalizatu egiten dira. Ezinbestekoa zaigu aipatzea, besteak beste, Julio Urkixo eta bere *Revista Internacional de Estudios Vascos*, Eusko Ikaskuntza sortu zenetik erakunde honen bozeramalea bihurtuta; Resurrección M<sup>a</sup> Azkue, bi aldizkariren egilea (*Euskalzale* eta *Ibaizabal*), opera baten konpositorea (*Vizcayatik Bizkaira*), hiztegi eskergaren, kantutegi baten, lehen ikastolaren bultzagilea<sup>5</sup> eta lehen euskal katedraren jabea; eta Gregorio Muxika, euskaltzale sutsua eta *Euskal Esnalea* elkarte eta aldizkariaren zuzendaria. Bertako eta kanpoko euskaltzaleek (Alemaniatik eta Europako beste lurralde batzuetatik ere euskarari buruzko ikerketa filologikoei bultzada handia jaso zuten) ikertzen ari garen bi hamarkada hauetako urrezko loraldia prestatu zuten nolabait.

Eusko Ikaskuntza 1918an sortu zen. Idoia Estornés Zubizarretak ondo baino hobeto kontatzen digu Eusko Ikaskuntzaren sorrera<sup>6</sup>. Lehenago ere bazeuden Hego eta Ipar Euskal Herrian euskara eta euskal kultura bultzatzeko sortuak ziren elkarte batzuk. Nafarroako Euskara Elkargoa, Euskal Esnalea eta Euskaltzaleen Biltzarra -azken hau mugaz bestaldean- ditugu, besteak beste. 1915ean Toribio Alzagak Donostiako Academia de la Lengua y declamación Euskara delakoa sortu zuen. Erakunde, elkarte eta aldizkari kultural batzuek Euskararen Akademia bat eratu zedin eskatu, eta giroa prestatu ere, egiten zuten. Munduko Lehen Gerraren ondoko egoera ekonomikoa ere oso kontuan hartzeko faktorea dugu<sup>7</sup>. Abertzaletasunak ere

---

4 Ikus DIAZ NOCI, Javier, *Euskarazko aldizkari, almanaka eta egutegien erroldea (1834-1959)* liburuan, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1994, 62.-64. orrialdeak.

5 Azkuek 1896an sortu zuen ikastola hura. Ikus ARRIEN, Gregorio, *La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares 1932-40*, Onura, Bilbo, 1983, 46. orrialdea.

6 ESTORNÉS ZUBIZARRETA, I.: *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1983.

7 "Tras la crisis económica de 1914 -estallido de la Gran Guerra-, la euforia productiva y financiera posterior, al comenzar la misma a proporcionar grandes beneficios a las compañías navieras vascas y, por ende, a la industria subsidiaria, arropa este renacer de la cultura, al que acompañará la demanda, imperiosa, de autonomía para el País Vasco". Idoia Estornés, op. cit., 13. orrialdea.

badu zeregina, bere pisu politikoa gero eta haundiagoa izanik, eta gero eta pragmatikoago bihurtuz, erakundeetan parte hartzen zuen heinean.

Euskal kulturaren interesak bil zitzan erakunde edo elkarte bat sortzeko ordua zen. 1918ko udan Eusko Ikaskuntzen lehen Batzarrea egin zen Oñatin. Irailaren 7an Sociedad de Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntzaren araudia osatu zen. Eusko Ikaskuntzak lehenagoko elkarrekin ez bezala, euskaltzale guztien laguntza jaso zuen. Hor zeuden karlistak, abertzaleak, euskalerrriakoak eta liberalak. Idoia Estornésen ustez, Eusko Ikaskuntza euskal unibertsitatearen saiakera bat dugu, eta autonomiarako abiapuntu bat ere bai. Azken finean, Eusko Ikaskuntzak autonomi-proiektu bat idatzi zuen 1930ean, Lizarrakoa. Bizkaiko Foru Aldundian sartuta, jeltkideek proposatu zuten 1917an Eusko Ikaskuntza eratzea. Hortik Gipuzkoara eta, arazo txiki batzuen ondoren, Araba eta Nafarroara hedatu zen. Idoia Estornésék azpimarratzen duen bezala, Eusko Ikaskuntza alderdi politiko guztien gainetik zegoen, baina horrek ez du inolaz ere esan nahi apolitikoa zenik. Sortzaileen gogoan bazegoen antzinako Sociedad Bascongada de Amigos del País, Peñafloredako Konteak eta Azkoitiako zalduntxoek XVIII. mendean sortua, baina batez ere ereduak Institut d'Estudis Catalans izan zen. Bere zereginak haundiak izan ziren: Euskaltzaindia sortu zuen, hiru aldizkari sostengatu zituen (*Eusko Ikaskuntzaren Deia*, *Anuario de Eusko Folklore* eta lehenagoko *R.I.E.V.*, Eusko Ikaskuntzak behar zuen aldizkari kulturala bihurtuz), zazpi Eusko Ikaskuntzen Batzarrak edo Congreso de Estudios Vascos antolatu zituen (1918an Oñatin, 1920an Iruñan, 1922an Gernikan, 1926an Gasteizen, 1930ean Bergaran, 1934an Bilbon eta 1936an Lizarran), erakusketak, omenaldiak, estatistikak egin zituen, libururak argitaratu, bilduma batzuk osatu, partiturak bildu eta argitaratu eman, jaiak berriak ziren ikastolak lagundu, Euskal Herriko unibertsitatea eskatu... euskal kulturarekin edozein gauzaz arduratu zen Eusko Ikaskuntza, Euskal Herriko lurraldeetan ezezik, Madrilen eta Bartzelonan ere delegazio bana zeukana. Bartzelonan 1925ean desagertu zen, eta Madrilgoa 1926an sortarazi zuten hango Euskal Etxean. Handik aterako ziren euskal kazetagintzarekin zerikusia zuten proiektu batzuk, hala nola euskara hutsezko lehen komikiarena<sup>8</sup>.

Euskaltzaindiaren sorrera Eusko Ikaskuntzaren eskutik etorri zen. Euskararen Akademiaren ideia aspalditik zetorren, ordea. Euskaltzaindiak berak argitaratutako *Euskaltzaindiaren historia laburra* izeneko liburuskari agertzen dira aintzindari batzuk. Lehenengo aitzindaria arabar bat, José Paulo Ulibarri Galindez izan zen, euskara hutsezko lehenengo almanaka argitaratu zuena. Ulibarriren gutun batean euskara kontuetan arituko ziren hogeita lau gizonen osatutako akademia bat sortzeko ideia erakusten du<sup>9</sup>. Hurrengo aipamen zuzena José Francisco Aizkibelena dugu, 1856an egina. Bere proposamenean agertzen da lehen aldiz euskara batu baten premia, "*un dialecto clásico y literario que comprendiesen igualmente los habitantes de todo el país vascongado*".

Hizkuntza batzeko beharra, ortografiari dagokionez gutxienez, euskararen akademia bat sortzeko proposamen guztietan dago. Antoine d'Abbadie saiatu zen Akademia sortzen, baina alferrik. Manterolak zerbait esan zuen horretaz, eta Arístides Artiñanok *Academia Bascongada* delakoaren proiektua 1886ko Durangoko Euskal Jaietan aurkeztu zuen. Sabino Arana burutu ez zen proiektu haren alde agertu zen. Hurrengo ahalegina ez da normalean aipatzen,

---

8 Ikus DIAZ NOCI, Javier, "Txistu, lehen euskarazko komiki-aldizkaria", *Jakin*, 62. zenbakia, 1990, eta "Abdón Alaiza, un alavés artífice del primer comic vasco", *Kultura*, Arabako Foru Aldundia, 1990.

9 "Ogueta lau guizon/biar dira icentau/Guernicaco bazarrean/euskeraren ganean/eguiteco aleguiñe au". *Euskaltzaindiaren historia laburra* liburuan, Bilbo, 1984, 12. orrialdea.

guk behintzat ez dugu inon aipamenik ikusi. Donostiako *El Pueblo Vasco* eta Buenos Aireseko *La Euskaria* aldizkarietan aipatzen da<sup>10</sup>. Cosme de Churruca delako batek 1897ko urriaren 28an proposatu omen zion Gipuzkoako Foru Aldundiari Akademia bat sortzea: "(...) *La misión de esta Academia será la de hacer un diccionario de esta lengua, tomando como base el de la castellana, publicado por la de Madrid [euskara-gaztelera eta alderantzizkoa, etimologikoa]. La Academia se compondrá por ahora de 22 personas, 6 por cada una de las provincias de Guipúzcoa y Vizcaya, por ser mayor el número de habitantes que en ellas hablan el vascuence; 4 por cada una también de las regiones de Francia y Navarra; y 2 por la de Alava. Estas personas que formaren la Academia serán nombradas por las respectivas provincias ó regiones y por la iniciativa de las Diputaciones de las mismas (...). Los académicos se reunirán trimestralmente en la ciudad de San Sebastián, como punto más céntrico para todos (...). Terminado el Diccionario se harán, por la misma Academia también, la Gramática y Ortografía vascongadas (...)*".

Foru Aldundiek ez zioten jaramonik egin. Hurrengo ahalegina XX. mendean egin zen. 1901ean Hego eta Ipar Euskal Herriko euskaltzaleek beren indarrak batu eta bideratzea erabaki zuten. Lehenengo bilera 1901eko abuztuaren 11n egin zen Hendaian. Bigarrena urtebete geroago egin zen. Ortografia batzea arazoa gaindiezin bihurtu zen, eta hortik bi elkarte sortu ziren, Iparrean *Eskualzaleen Bilzarra* eta Hegoan *Euskal Esnalea*. Biok aldizkari bana zuten<sup>11</sup>.

Akademiara iritsi zen azkenengo saiakera 1918koa izan zen. Esan bezala, urte hartan bertan sorturiko Eusko Ikaskuntzaren Hizkuntz Sailak -Julio Urkixok eta Luis Eleizalde zuzentzen zutena- proposatu zuen euskararen akademia eratzea. Oharturik lehenagoko ahalegin pribatuak ez zirela aski Akademia sortzeko<sup>12</sup>, erakunde publikoen ezinbesteko laguntza eskatzea deliberatu zuten. 1918ko urtarrilaren 25ean Cosme Elgezabal eta Félix Landaburu diputatuek Bizkaiko Foru Aldundiari Euskal Herriko beste hiru foru aldundiekin batera Akademia sortzea proposatu zioten. Horretarako Eusko Ikaskuntzen I. Kongresuari proiektua gauzatzeko eskatu zioten. Raimundo Olabidek aurreproiektua osatu zuen, eta aholku eta sugerentzia batzuk jaso ondoren, 1918ko azaroan onartu zuten. Eusko Ikaskuntzak Foru Aldundiei proiektua bidali eta hauek ere onartu zuten. Euskaltzaindia jaio zen, Resurrección María de Azkueren zuzendaritzapean. Oñatin hautatutako lehenengo hiru euskaltzainak Arturo Campión, Luis Eleizalde eta Julio Urkixo ziren. Beste zortziak 1919ko irailaren 21ko Euskaltzaindiaren lehenengo bileratik atera ziren: Domingo Agirre, Jean Blaise Adema, José de Agerre, Pierre Broussain, Juan Bautista Eguzkitza, Ramón de Intzagarai, Raimundo Olabide eta Pierre Lhande. Azken honek zuzenduko zuen Euskaltzaindiaren bozeramailea, *Euskera*. Irizpidea -hau azpimarratzea berebiziki interesatzen zaigu- euskal aldizkarien zuzendari guztiak euskaltzaintzat hartzea izan zen. Nolabait, 1901eko asmoa berreskuratzen zen, han ere euskal ka-

---

10 *La Euskaria*, 1907eko ekainak 8, 43. zenbakia, 1. orrialdea.

11 Eskualzaleen Biltzarraz Manex Goienetxek bi testu ezin interesgarriagoak idatzi ditu: "Les origines sociales et historiques de l'association Eskualzaleen Biltzarra", C.N.R.S., Université de Pau et des Pays de l'Adour, *L'Avenir des Pyrénées et des Landes*, 1974ko irailak 19; "Idéologies culturelles et espace social en Pays Basque de France à la veille de la première guerre mondiale", *La production sociales des espaces*, C.N.R.S., sous la direction de Pierre Biddart.

12 1906an eta 1907an Bizkaiko Diputatu Nagusia zen Adolfo de Urquijok A. de Artiñanoren proiektuan oinarriturik estatutu edo araudi batzuk idatzi zituen; Azkuek eta Federico de Baraibarek ere horretaz hitzegin zuten (*Euskaltzaindiaren historia laburra*, 48. orrialdea).

zetaritzak bai baitzuelako zer esanik; azken buruan, badirudi asmo nagusia euskaldunon hizkuntzaz idatziriko hedabideen idazkera batzea zela. Euskal kazetaritzan mugitzen zirenak edota aurrerantzean ere mugituko zirenak kontutan hartu zituen Euskaltzaindiak: hor zeuden, esan bezala, Intza, Iruñako kaputxinoen *Irugarrego Prantziskotarra* eta 1919an bertan sorturiko *Zeruko Argia* aldizkariaren zuzendaria<sup>13</sup>, Eguzkitza, Zornotzako *Jaungoiko-Zale* eta *Ekin* aldizkarietan izugarritzako lana egin zuena, Euskal Herriko sindikalismo katolikoaren teorigile nagusietariko bat, eta Ramón Intzagarai, 1921ean sortuko zen *Argian* bere garrantzia izango zuena.

1920an Ademak eta Agerrek errenuntzia aurkeztu zuten eta Agirre eta Broussain hil ziren. Haien ordez Sebero Altube, Georges Lacombe, Martin Landerretche eta Damaso Intza (*Zeruko Argiaren* zuzendaria) euskaltzain bihurtu ziren. Lehenengo zereginak ortografia batzea eta hizkuntza literario batu baten beharra aztertzea zen. Zer esanik ez, euskaldun eta euskaltzale guztiak ez ziren Euskaltzaindiaren erabakien alde jarri, eta sabindiar eskola bereziki (Azkueren antzinako laguntzailea zen Ebaristo Bustintza *Kirikiño* gidari zutelarik) aldi askotan aurka azaldu zen.

Euskaltzaindiak berak, aurreko lerroetan aipatu dugu, bere aldizkari propioa kaleratu zuen eta gaur egun ere, Gerrak inposatutako etenaldiaren ondoren, 1953tik argitaratzen du-, *Euskeraren Euskaltzaindiaren lan eta agiriak* izenekoa. Testuak euskaraz ezezik Euskal Herrian hitzegtzen diren beste bi hizkuntzatan ere agertzen ziren, gaztelaniaz eta frantsesez. Garai batean Donostian argitaratu bazen ere, Garibai kaleko Eneko Deunaren Irarkolan (Leizaolatarrin inprimategia, euskal liburugintza eta kazetagitza foko nagusietariko bat, Zornotzako Jaungoiko Zale'ren Irakorlarekin batera), zenbaki gehienak Bilbon agertu ziren. Hala ere, inprimatu beste leku batzuetan ere egiten zen, Hondarribiko Martín, Mena eta bere Lagundia'ren etxean eta Frantziako Tolosako Edouard Privat'en Gutundegi ta Irarkolan. Pierre Lhandek bere gain hartu zuen aldizkaria ateratzeko ardura, eta gero (dirudenez Lhandek zenbait arazo izan zuen Espainiako agintariekin, eta muga pasatzea denboraldi batean debekaturik izan zuen) Nazario Oleaga zuzendari bihurtu zen. Hortik Euskaltzaindiak bere emaitzak, bere iritziak, bere urratsak ezaugarritzen zituen. Euskarak, lehenago hainbestetan gutxietsia, bazeukan nolabaiteko prestigioa eta estatua ematen zion erakundea. Hori, esan beharrik ez dago, laguntza eta adore handia izan zen euskaltzaleen egitasmo guztietarako, kazetaritza ere barne. Lehenago ere planteiatutako arazoa, euskararen batasuna, eta bere inguruan sortutako beste arazo batzuk ere (neologismoak, ortografiaren batasuna, etabar), pil-pilean jarri ziren.

Baina Euskaltzaindiaren hainbat eta hainbat asmo eta ekintza ez dira *Euskeraren* orrialdeetan agertzen. Euskarazko irakurketa bultzatzea zen horietako bat. Euskaltzaindian bertan dauden gutunek, zirriborroek eta bestelako agiriek Akademiak horren alde egindako ahaleginen berri ematen digute<sup>14</sup>. 1919an bertan hasten dira lanean. Maiatzean, adibidez, gutun bat bidali zioten Junta de Cultura Vasca zelakoari, euskarazko literatura haunditzeko asmoz. Helburua da idazleen eta argitaldarien ekintza pribatuak bultzatzea. Diru kopuru bat ezarri nahi dute horretarako: sei mila pezeta. "*Sólo exigiremos, por nuestra parte, que esas obras se ajusten por su fondo y forma a normas o condiciones fáciles de llenar y manifiestamente precisas dentro de un criterio sin exageraciones*", zioten euskaltzainek gutun horretan<sup>15</sup>. Bestal-

13 Mikel Olasagarre Zubillaga, gero Damaso Intza erlijio izena hartuko zuena, Intzan (Nafarroa) 1886an jaio zen.

14 Bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkiogu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako arduradunei.

15 "A la Junta de Cultura Vasca", Bilbo, 1919ko maiatzaren 1a.

de, ordea, Euskaltzaindiak bazekien ekintza pribatuak ez zituela egingo euskarak behar zituen bestelako liburuak; itzulpenak, adibidez. Horiek argitaratzeko, Administrazioak esku hartzea eskatzen zuen Euskaltzaindiak. Nekazaritzari buruzko liburuak aipatzen dira. Hauetarako guztietarako, 3.000 pezeta.

Azkenik, gutun hartan lehen aldiz Euskaltzaindiak bestelako lan idatziak aipatzen ditu: aldizkariak. Hasiera batean, errebistak aipatzen ditu bakarrik, ez egunkariak: *“Resalta (...) más que la necesidad de aumentar su número, la conveniencia de mejorarlas. A este objeto proyectamos una subvención metálica para aquellas revistas cuya mayor parte de texto se escriba en euskera y cuyo original alcanza anualmente el número de páginas de un libro corriente; a cambio de esto les impondremos la condición de publicar en folletín alguna obrita necesaria, de común acuerdo designada”*. Bi heren euskaraz dituzten aldizkariak, egitasmo honen arabera, 250 pezeta jasoko lukete urtero. Guztira, 2.000 pezeta.

Utz dezagun oraingoz liburugintza, eta goazen kazetagitzairen harira. Esan bezala, lehen euskaltzainak euskal aldizkariaren zuzendariak edo arduradunak ziren, beraz oro har ondo samar jaso zituzten Euskaltzaindiak arlo horretan burutu nahi zituzten asmoak. Horietako bat, ortografia bateratzea. Sabindiarrek izan ezik -haiek, Bustintza buru, Euzkeltzale Bazkuna Arararen hizkuntz teorien gordailu bihurturik eta *Euzkerea* aldizkaria bozeramalea zelarik, jo eta ke jarraitzen zuten P.N.V.ren sortzailearen ideiak defendituz- beste guztiek onetsi zuten. 1920ko urtarrilaren 29an Damaso Intzak gutun batean baietz diotso Azkueri, hala ere *Zeruko Argian* hilabete batzuetan *“sail batzuek lengo erara idaztea”* eskatzen du, *“gure arpidedun askok eztingute gogo onez artuko noski aldaketa ori”* uste duelako. Hala ere, Iruñako kaputxi-noen aldizkarian eta Donostiako *Argian*, buru belarri onartu zuten Euskaltzaindiaren erabakia. Berdin *Jesus'en Biotzaren Deyan*<sup>16</sup>. Ez, ordea, bizkaierazko *Jaungoiko-Zale* hamabostekarian, bere artezkaria zen Zirilo Arzubiagak dioenez, *“lenengo batzar nagusijan erabagi gendualako idazle guztijak azke iztia eurak nai daben idazkerea erabilten”*, baina prest omen zeuden -aranistak ez bezala- *“Euskaltzaindi orri gure ele maitiaren alde lagunduteko”*. Iparretik, guk dakigunez behintzat, erantzunik ez. Gipuzkoarrak eta nafarrak, behintzat, ados. Batasunerako urratsak nonbait eman baziren, kazetaritzan izan zen<sup>17</sup>.

Horretaz gain, 1920. urtean zehar Euskaltzaindiak kazetekiko beste egitasmo bat ere gauzatu zuen. Dirudienez, lehenengo pentsaera aldatu eta egunkariei begira jarri zen Akademia. Dakigunez, garai hartan ez zegoen euskara hutsezko egunkaririk. Euskaraz egunero zertxobait argitaratzen zuen egunkari bakarra *Euzkadi* jelkidea zen, 1913an sortua eta hasiera-hasieratik Ebaristo Bustintzaren eskutik orrialde bateko *Euzkel atala* zeukana. Euskaltzaindiak garrantzitsutzat jo zuen egunero euskaraz zerbait irakurri ahal izatea, eta horretarako euskarazko testuak bidaltzea komenigarria zelakoan, Akademian bertan bulego edo erredakzio bat eratzeke urratsak eman zituen.

Bulego horren gorabeherak Euskaltzaindian dauden agirien bitartez ezagutu behar dugu. Asmoa ez da agertzen *Euskera* aldizkarian. 1920ko abenduan gutun bana bidaltzen zaie Bilboko sei egunkaritako zuzendariari (orduan zazpi egunkari zeuden). Dirurik ez, ordea, eta egunkariak dirulaguntza bat jar zezatela eskatzen zuen Euskaltzaindiak. Badakigu behintzat hiru komunikabidek milana pezeta eman zutela: *La Gaceta del Norte* katolikoak eta *Euzkadi*

16 1920ko otsailaren 16ko gutuna (Euskaltzaindia).

17 Honetaz, ikus A.S.J.U.n gure aipatu testua.

eta *La Tarde* jekideek<sup>18</sup>. Dirudienez, asmoa zen bulego hori behin sendo antolatuta, euskara hutsezko egunkari bat argitaratzea. Euskaltzaindian ikusi dugun agiri baten aztarnak baieztatzen digu uste hori: 1920ko abenduan bidali behar omen zen gutun baten inprimakiaren erdiak -gero eskuzkribatutako karta baten euskarri izan zena- halaxe dio: "*Facultado por la Academia de la Lengua Vasca para fundar en Bilbao una Redacción encargada, por el momento, de suministrar original vasco a seis de los siete periódicos de la localidad, y más tarde, cuando sea posible, de lanzar a la publicidad un diario exclusivamente (...) [en lengua vasca]*". Orain arte, beti uste izan dugu euskara hutsezko egunkari bat ateratzeko lehenengo asmoa 1929an Eusko Ikaskuntzaren inguruan eta batez ere Jose Maria Agirre *Lizardik* bultzaturikoa izan zela<sup>19</sup>. Honek erakusten digu euskal kulturaren zenbaiterainoko garrantzia ematen zitzaion kazetaritzari. Gainera, urte hartan bertan Euskaltzaindiak pentsatu bide zuen Bilbokoei ezezik Euskal Herriko beste komunikabideei ere euskarazko testuak ematea. Eskuz idatzitako zerrenda bat aurkitu dugu Azkue Bibliotekan, non interesgarri zeritzaten aldizkari eta egunkariak agertzen diren (erdarazkoak zein euskarazkoak): Bizkaiko *Euzkadi*, *La Gaceta del Norte*, *El Pueblo Vasco*, *Noticiero Bilbaíno*, *El Liberal*, *La Tarde*, *El Nervión*, *Aberri*, *Euzko-Deya*, *Hermes*, *El Tradicionalista*, *El Apostolado Franciscano*, *Jaungoiko-Zale*, *Jesús en Biotzaren Deya*; Gipuzkoako *El Pueblo Vasco*, *La Constancia*, *La Información*, *La Voz de Guipúzcoa*, *El Liberal Guipuzcoano*, *La Crónica*, *Euskal Eснаlea*, *Euskal Erriaren alde*, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, *Irugarren Frantziskotarra*; Gasteizko *El Herald Alavés*<sup>20</sup>, *La Libertad* eta *Arabarra*; eta Iruñako *El Pensamiento Navarro*, *La Tradición*, *El Pueblo Navarro*, *Zeruko Argia* eta *El Diario de Navarra*. Hau da, une hartan agertzen ziren guztiak. 1920ko azaroaren 25-26ko bileran, 8. puntuan<sup>21</sup>, "*Bizkayan Manterola tar Gabirel urgazle jauna, Euskaltzainburua artezkari dala, izentau zan*". Mante-rola *Jaungoiko Zalaren* arduraduna zen. Gipuzkoan Ramon Intzagarai *Argiakoa* eta Nafarroan Damaso Intza *Zeruko Argiakoa* hautatu zituzten.

Helburu horren inguruan sortutako egitasmoak oso modu zatikatuan iritsi zaizkigu, ordea. Antza denez, euskarazko aldizkari guztien artean halako elkartasun bat sortu nahi zuten. Hala ere, bazirudien irakurlezaletasunak ez zuela aurrera egiten kazetagitza bezain azkar, Damaso Intzak (*Zeruko Argiaren* zuzendariak) eta Zirilo Arzubiagak (*Jaungoiko-Zalaren* zuzendariak) Euskaltzaindira bidali zuten gutun batean irakur daitekeenez: "*Euskal izparringi (papa) ta aldizkingiak (revista, revue) zorionez ugarituaz dijoaz; baña ez da onen neurrian ugaritzen euskeraz irakurtzeko zaletasuna ta beraz, idazleak gogotsu lan egin arren, onen lanak ez dira errira eltzen*". Arazo hau konpontzeko sortu zen Donostiako *Argia* astekaria, urte hartan lehen aldiz argitaratu zena (bultzatzaileak Jesus Karrera eta Bitor Garitaonandia jesuitak, Ander Artzeluz apaiza eta Anbrosio Zatarain laikoa, besteak beste, izan ziren). Aipatu elkartasuna sortu ahal izateko, Intzak eta Arzubiagak 1921ean Gipuzkoako Diputazioan ospatu zen bilera batera deitu zituzten "*eusker a hutsez argitaratzen diran izparringi ta aldizkingien zuzendariak eta eusker a zabaltzea eginkizuntzat daukaten alkartasunen ordezkooak*". Dirudienez asmoak ez zuten arrakasta handirik lortu, eta ez dago beste aipamenik horri buruz. Hala

18 1920ko abenduaren 11ko, 29ko eta 30ko gutunak.

19 Ideia Eusko Ikaskuntzak antolaturiko Uda Ikastaroetan gauzatzen hasi zen. Ikus *Crónica de los Cursos de Verano*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1929. Lizardiren ekarpenak irakur daitezke *Kazetari lanak* bilduma-liburuan, Erein, Donostia, 1989.

20 Gasteizko egunkari honek onartu zuen 1920an astero euskarazko testu bat argitaratzea, "*ez geyagorik, lan-gileak urri daukazalako*".

21 Ikus urte hartako *Eusker a*.



ere, euskarazko testuak egunkarietara bidaltzeko dirulaguntzak datoz 1921ean<sup>22</sup>. Urte hartan kalkulatu dute zuzendari bat, zuzendari-orde bat eta hiruzpalau idazle izango zituen prentsa bulego bat antolatzeko 8.000 pezeta behar zituztela. Urte berean Donostiako *El Pueblo Vasco* egunkariak onartzen du hilean behin euskarazko orrialde bat argitaratzea, “*ta Euskaltzaindia’k astero bi aldiz bidaltzen dizkiyon idazkiñak orrialde ortarako gorde nai lituke*”. Euskaltzaindiaren proposamena harantzago doa: “*Erantzun bear zayo, astero-asteroko idazkiñoak argitaratzeko, ta illeroko orrialderako berri berriyak bidaliko zaizkiyola*”<sup>23</sup>. 1922an Nafarroatik ere erantzun onak jasotzen dituzte: *El Pensamiento Navarro* egunkariko arduradunek baie-tza ematen diote Euskaltzaindiari<sup>24</sup>. Urte hartan Euskaltzaindiak bi erredaktore dauzka Euskal Herriko prentsara euskarazko testuak bidaltzeko<sup>25</sup>. Ekintza horiek guztiak Euskaltzaindiari dirua kostatzen zaie. Ezagutzen ditugu 1924ko kontuak, eta Akademiak 2.000 pezeta gastatu zituen euskal aldizkariari dirulaguntzak ematean. *Zeruko Argiak*, *Jaungoiko Zalek* eta *Euskal Esnaleak* bostehuna pezeta jaso zuten; *Argiak* 200; eta *Euskerak* (Euskaltzaindiaren beraren aldizkariak), 300. Gainera, aldizkari gehienek liburuak argitaratzen zituzten, eta beraien truke dirulaguntza bana ere jaso zuten: *Euskal Esnaleak* hamar liburuska argitaratu zituen, 500 pezeta jaso zituelarik, eta beste 200 pezeta antolaturiko hitzaldien testuak argitaratzeagatik; *Argiak* Pierre Lhanderen *Yolanda* eleberria plazaratu zuen (75 pezeta), eta egutegiak (beste 75 pezeta); *Zeruko Argiak* 75 pezeta jaso zituen *Jesukristoren Bizitza* argitaratzeagatik; eta *Jaungoiko Zalek* beste horrenbeste dotrina bat kaleratzeagatik. Aldizkariaren ekimenak sortu ez zituen beste liburu batzuek ere dirulaguntza bana jaso zuten. Guztira, urte hartako literatur ekoizpena sustatzean Euskaltzaindiak 7.773 pezeta gastatu zituen.

Ikusten dugunez, Euskaltzaindiak argi eta garbi ikusi zuen kazetaritzak euskal kulturari zeukan garrantzia, eta laguntza handia eman zion. Euskara hutsezko egunkari bat ere pentsatu omen zuten, eta haren oinarri izan behar zuen erredakzio txiki bat ere antolatu. Hasiara batean, asmoa zen erredakzio hartatik testuak bidaltzea egunkarietara, komunikazio enpresetatik jasotako dirulaguntza baten truke; gero, ikusi dugunez, zenbait laguntza jaso bazen ere, Euskaltzaindiak ordaindu behar izan zuen erredakzioa mantentzeko eta euskal aldizkariari subentzioak eman ahal izateko.

*Euskeraz* gain, Euskaltzaindiarekin loturik zegoen beste aldizkari bat sortu zen, *Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Deia*, 30.eko hamarkadan. 1934ko urtarriletik 1935era arte agertu zen Bilbon, lehenik hilabetero eta gero, 1935ean, bi hilabetetan behin. Euskararen irakaskuntza zuten kezka nagusia. Hor sartuta zeuden, besteak beste, Damaso Intza, Martin Lekuona (lehendakaria) eta Nazario Oleaga. Batzorde bana zuten Araban, Gipuzkoan, Nafarroan eta Bizkaian. Aldizkaria saltzeko, bi mila orri bidali ziren harpidetzak egiteko asmoz. Badirudi 7.000 bat ale kaleratzen zizutela<sup>26</sup>. Bilerak Donostiako Eusko Ikaskuntzaren egoeran egiten ziren. Euskaltzaindiaren Laguntzalleak Akademiaren Yaur-sailean sortua zen. Helburua, esan bezala, “*eusko-erkietako aur eusko-erdaldunen artean euskera zabaltzea*”<sup>27</sup>. Aldizkarian lan guztien berri agertuko zen.

22 Bizkaiko Foru Aldunditik bidalitako gutuna, 1921eko apirilaren 5ean eta 23an.

23 1921eko azaroaren 25eko bileran harturiko erabakia.

24 Miguel Esparzak, egunkariko zuzendariak, 1922ko uztailaren 3an Euskaltzaindiara bidalitako gutuna.

25 Euskaltzaindia, 1922ko urtarrilaren 7ko gutuna, Engrazio de Aranzadiri (*Euzkad*) bidalia.

26 Martin Lekuonak gutun batean dioenez (Musitu, 1934ko ilbeltzaren 23koa).

27 Ibidem.

Nola gauzatu behar zen asmo hori? Elebitasunean, haien ustez. Eta elebitasun hori lorzeko, alde batetik euskara bizi zen lekuetan irakaskuntzaren bidez bultzatu eta “*izkera ori be-  
ra [euskara] il dan bazterretan piztu egin*” nahi zuten<sup>28</sup>. Euskara “*Endaren izkuntza da*”. Wundt irakasle alemaniarren teoretan oinarritzen ziren, “*gizadian nabaitzen diran abots eta izkera ugariak, jatorriak ematen duan gaitasun ezberdiñetatik datoz, eta enda bakoitzean abots eta izkera oiek bestelakoak dira*”<sup>29</sup>. Delos soziologoa ere agertzen zen Euskaltzaindiaren Laguntzalleen aipatzen zituztenen artean. Haien ustez, euskara herriaren izpirituaren isla da, “*eusko gogoa*” hitz pare batean definitzearen. Elkarte honen asmoak Europako giroan murgiltzen ziren, Belgika, Suiza, Gales, Bengala, Irlanda eta Alsazia-Lorenako esperientziak eredutzat hartuz<sup>30</sup>. Euskal Herrian metodo batzuk erabili zituzten. Arabako herri batzuetan, han non euskarak izugarriko galera sufritu zuen aurreko mendeetan, eta non atzerakada beste lurraldeetan baino haundiagoa zen, berpizte lana behar-beharrezkoa zen. 1934an F. Jaka-Kortajarena gipuzkoarra, Arabako euskararen muga zen Nafarrate herrira joan eta hil zorian zegoen hizkuntzaz hitzaldiak ematen hasi zen. Aldi berean hango bizkaiera ikasten joan zen. Ondo ulertzen hasi zirenean, “*erderaz baño obeki*”, umei Kristau-lkasbidea irakatsi zien, “*kantu batzuekin batera*”. “*Eleiza, ba, euskaldundu zan*”, dio Jaka-Kortajarenak berak<sup>31</sup>. Hurrengo pausua etxeko mutiko gazteena hartu eta euskarazko kantu batzuk irakastea izan zen, haren bidez familiako beste guztiak ere euskara berreskura zezaten. Piskanaka piskanaka, euskararenganako zaletasuna hedatzen joan zen, eta “*Nafarrate’n, ba, Euskera ta oiturak beste bi gizaldirako zutitu dira*”. 1934an Arabako euskaldunak gutxi ziren. Euskaltzaleak Elkartearen ikerketa baten arabera (*La Muerte del Euskera*), 8.500, 28 herritakoak.

Beste kasu bat Bilbokoa da. Han, 1920ko eroldaren arabera, euskaldunak 20.000 bat ziren, gehienak emakumeak (12.078). Ramon Ertzeren ustez, “*existe, pues, en potencia, una fuerza que es preciso utilizar*”<sup>32</sup>. Euskaldunentzako giro atsegina eta egoki bat sortzea proposatzen zuen, kanpaina publizitario baten bidez, “*a la manera como se forma un ambiente electoral u otra propaganda cualquiera*”. Esperantza, ordea, haurrengan zegoen. Ume euskaldun berriak udan baserri eta euskaldun herrietara bidaltzea proposatzen zuen, ume bana etxe bakoitzean.

Iruñean egoera desberdina zen. Umeak euskalduntzearen lana Euskeraren Adiskideak Elkartearen eskutan zegoen. Miren Biskarret andereñoaren gidaritzapean, hiru klase zeuden, berrogeitabostna ikasle inguru zituztenak. Bestalde, beste 35 euskaldun berri ikasten ari ziren Eusko Gaztedian, eta A.M. Mokoroa eskolapioak eskolak ematen zituen Calasanz Ikastetxean.

Ez da harriztekoa, beraz, nola Iruñako kaputxinoek (*Zeruko Argia* argitaratzen zutenak), 1923ko maiatzean euskara hutsezko komiki bat plazaratzea proposatu zioten Euskaltzaindiari. *Umeentzako euskal ingitxo* hori ez zen inoiz ere agertu, baina euskal kulturari (eta euskal tes-tuen irakurketa ohituretan) umeak bereganatzen ari ziren garrantziaren froga garbia da.

---

28 Euskaltzaindiaren Laguntzalleak *Deia*, 1934ko otsaila, 1. orrialdea.

29 Ibidem. Wundt-ekin ikasi zuen Joxemiel Barandiaranek.

30 Euskaltzaindiaren Laguntzalleak *Deia*, 1934ko ekaina, 6. zenbakia, 6. orrialdea.

31 Ibidem.

32 *Euzkadin* agerturiko testua, Euskaltzaindiaren Laguntzalleak *Deian* ere berriro argitaratua, 1935.eko maiatza-ekaina, 17.-18. zenbakia, 1. orrialdea.

Bestalde, bere jaiotzatik Euskaltzaindiak hezkuntza sisteman bere eragina edukitzea bilatu zuen, euskal kultura berpizteko ezinbestekotzat jotzen baitzuen gizartearen ardatz hori. 1923an Euskaltzaindiak udalei gutun bana bidali zien euskaraz idatzitako liburuak eros zituzaten<sup>33</sup>. Behintzat erantzun ona jaso zuten Zumarragatik, Aretxabaletatik, Azkoitiatik, Eibartik, Elorriotik, Erandiotik, Hondarribiatik, Itsasondotik, Markinatik eta Urnietatik (bakoitzak 25 pezetetatik 200era). Liburu haiek honakoak ziren: *Neska mutillei dirua aurreratzen erakusteko*, *Ipuin laburrak*, *Egizko edertasuna*, *Lore usaidun mamitsuak* (historietak), *Lhanderen Yolanda* eleberria, *Azkueren Ardi galdua*, *Prontuario de la lengua vasca*, *Aita Prantzisko dontsuaren loratsuak* eta *Zurtasun gogoa* (*El ahorro*). Era berean, zenbait ikastetxetara gutunak bidali zituen Akademiak, liburuak eta sariak eskaintzeko<sup>34</sup>.

Azkenik, gehiegi ez luzatzearren, Euskaltzaindiaren beste egitasmo bat aipatuko dugu, gure ustez erakusgarri askoa delakoan: 1923an Landarretxe, Azkue, Eguzkitza, Intzagarai, Olabide, Lhande eta Intza euskaltzain eta abadeek gutun bat bidali zieten hainbat eta hainbat apaizi predikuak eta dotrinak euskaraz eman zituzaten eskatuz. Honetan ere euskal kazetaritzak badu zeresanik: gomendatzen dutena da *Jaungoiko Zalen* (bizkaieraz) eta *Zeruko Argian* (gipuzkeraz) agertzen diren azalpenak erabiltzea. Horretaz aparte, Jose Lezoren *Nere Laguna* liburua eta Mateo Muxika Gasteizko Gotzainak euskararazitako *Kristau Ikasbidea* erabiltzea ere gomendatzen zuten. Lehenago ere, mende hasieran Azkue bera kazetari zenean, bere *Ibaizabal* astekarian aholku eta eskaera berdinak egiten zizkien euskal kulturari *custodios linguae* lan egin izan duten eliz gizoni (ikus 45. oharra).

Ikusten dugunez, ikertzen ditugun bi hamarkada hauetan, euskarak bultzada handia jaso zuen. Giro akademikoetan behin betirako sartu zen, eta beraz, zilegi ematen zuen milaka proiektu -mundu modernoan iraungo zuen hizkuntza bati zegozkionak- aurrera eramateak; euskaltzaleek ederki ulertu zuten euskara biziko bazen, irakaskuntza, alfabetatze eta euskalduntze lanak, eredu idatzi estandarrak eta masa-gizarteko hizkuntza guztien ezaugarriak eskuratu behar zituela. Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia erreferentzia ezinbestekoak izan ziren zeregin horietan zebiltzan euskaltzale guztientzat, eta baita, jakina, euskal kazetariarentzat ere.

## 2. EUSKAL ALDIZKARIEN IRAKURLEAK

Atal honetan saiatuko gara adierazten nortzuk ziren ikertzen dugun garaiko zenbait euskal aldizkariaren irakurleak. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko irakurleagoz hitzegin behar dugu,

---

33 "Que se destine anualmente de los presupuestos una partida destinada exclusivamente a la adquisición de textos euskéricos para regalar a los alumnos de las escuelas".

34 Kezka horren adibide dira, esaterako, 1923ko urriaren 4an Bergarako Colegio de la Compañía de María delakora bidalitako gutuna ("...hemos sido gratamente sorprendidos al ver incluida, entre la enseñanza de idiomas, la asignatura de nuestra querida lengua vasca (...). Con el fin de que las alumnas tengan algún aliciente en este estudio esta Academia tendría sumo gusto en poner algunos premios en manos de las más aventajadas"; eta erantzuna, hauex: "Efectivamente, en el plan de estudios de este colegio está incluido hace ya años entre los idiomas el vascuence, y algunos cursos se dio esa clase a varias de nuestras alumnas, pero el año pasado nadie lo pidió y en el actual, hasta hoy en día tampoco hay ninguna niña que lo haya comentado"), edo 1923ko uztailaren 25ean Zornotzako (Larreako) Karmelitek bidalitako gutuna ("Ikastetxe onetan euskera irakasten dogu. Pozik artuko geunkez umiak jaten daben bitartean irakurtzeko idazti edo liburu atseginsu batzuk"); edo 1923ko irailaren 27an Euskaltzaindiak berako eskolapioei bidalitakoa: "(...). inconcebible postergación que padece nuestra querida lengua vasca (...). en Vera (...). Uno de los principales focos de la desvascuización radica en el Colegio que dirigen los RR.PP. Escolapios y en la capilla pública (...). Primero, que siquiera uno o dos de los PP. de la residencia sepan vascuence. Segundo, que en los actos de culto en que haya concurrencia de fieles se valgan de la lengua vasca y tercero, que den una ligera enseñanza en dicho idioma v.g. la enseñanza del Catecismo y la lectura de algunas fabulitas (...)."

eta horretaz zenbait datu badaude, Baionako Apezpikutzak burutzen zituen inkesten bidez eza-gutzen ditugunak. Beste alde batetik, Hego Euskal Herrian Donostiako *Argia* hartuko dugu arda-tza, hauxe baita gehien eza-gutzen dugun aldizkaria. Ez bakarrik zenbatek irakurtzen zuten -datu hori ezin garrantzitsua baita-, baita nortzuk ziren eta zer nolako ezaugarriak zituzten ere asmatu behar dugu, ahal den heinean behintzat. Zer nolako jendea zen, non bizi zen, zer maila kultural zuen, eta oro har, ahalik eta irakurle goaren ezaugarri gehienak ematen saiatu behar dugu.

## 2.1. Euskal kazetariak

Euskal aldizkariak nola irakurtzen ziren eta nortzuek irakurtzen zituzten aztertu aurretik, inter-resgarria iruditzen zaigu idazleei buruz zertxobait esatea, batez ere berri edo albiste arruntak idazten zituztenei buruz. Nortzuek idazten zuten euskarazko aldizkarietan? Izen batzuk eza-gutzen ditugu: Bittor Garitaonaindia, Esteban Urkiaga, Nikolas Ormaetxea, Resurrección Maria de Azkue, Ebaristo Bustintza, Gregorio Mujika, Ander Artzeluz... Izen aski eza-gunak. Baina, nortzuk ziren "Euskalerriko berriak", esaterako, idazten zituztenak? Norengandik zetozen berriak?

Normalean, euskarazko aldizkariak herrietan bazuten urgazle bat. Korrespontsal edo be-riemate hark bere herriaren eta askotan inguruko herrien berri ere ematen zuen. Baina, *Argian* agertutako lekukotasunek susmarazten digunez, ez hori bakarrik; askotan, idazkari haiek aldizkariaren banatzeaz, distribuzioaz, arduratzen ziren.

Gure ustez, nolako korrespontsalak ziren (eta nolako berriak eramaten zituzten astekari-ra) jakiteko, hoberena *Argian* agertutako lekukotasun bat transkribitzea da. Testigantza hau ezin dela kasu eta herri guztietan aplikatu badakigu, baina baliteke sistemarik erabiliena izate-a. Aipatu testuan idazle ezezagun batek Don Felipe delako bati omenaldia egiten dio. Don Felipe hura Oñatiko apaiza zen, herri nahiko haundi batekoa, beraz. Dirudenez, abadea Oña-tiko *Argiaren* "idazkaria" zen: "*Nunnai ta noiznai euskera garbi erabilliko zuan. Euskal ingi ta idaztiak Don Pelipe izan-oi zuten Oñati'n zabaltzalerik beroena. Euskal-idazti bat argitaltzeko zegoan berri artu ordukoxe eskatuko zituan sei-zortzi bat, bere idaztitegi ederrerako bat eus-kaltzale berriren batzuen artean zabaltzeko. Beste onenbeste egin oi-zuan izparringiekaz ere. Eta, jakiña, ARGIA'k ere Don Pelipe izan bear bere zabaltzalerik sutsuena. Argitaldu baño as-koz lenago asi zan bere berri ona zabaltzen. Lenbiziko zenbakia Oñatiratu zanean, or dijua Don Pelipe bere sakel zabalak (zabalak zituen Don Pelipe'k sakelak biotza bezalaxe) AR-GIA'z beteak dituala.*

*-Eldu zaigu ba ARGIA ere- esaten dio mutil gazte bati bat luzatuaz- oso polita dator.*

*Arutzago, solo-muturrean, zati bat irakurtzen dio baserritar bati. Baserritarra adurra da-riola da nekazaritza'ko atala entzuten. Eutsi -esaten dio Don Pelipe'k- zerorrek apurka apurka irakurriko dezu astea joan bitartean.*

*-Neronek ezingo det irakurri, baña gure Josetxu ia polito dator eskolan eta berari irakurri eragingo diot.*

*Onela sei-zazpi zenbakiak zabaldu ondoren etxeruntz dijoala (...). Eta gero euskera izku-tatuaz, eroriaz, galduaz dijoala... Ez erri bakoitzean Don Pelipe ba bagenu"<sup>35</sup>.*

---

35 *Argia*, 1924/VI/22, 166. zenbakia, 1. orrialdea.

Adibide honek erakusten digu zer nolako pertsonarengan jartzen zuten konfiantza. Herri bakoitzeko euskaltzale amorratu bat, eta euskaraz idazten zekiena, behar zuten, "Don Peli-pe"ren gisako bat. Seguruena, herri gehienetan baldintza horiek betetzen zituena apaiza zen.

Hala eta guztiz ere, hain desberdinak ziren idazleen idazkera nola batu? *Argian* behintzat idazkeraren batasuna nabaria da. Nola lortzen zuten batasun hori?

Gure ustez, adierazpena Bernardino M. Hernando Madrileko Unibertsitate Complutenseko irakasleak "*unidad redaccional*" deitzen duen kontzeptuan datza<sup>36</sup>: "*Cada periódico funciona como una especie de comunidad lingüística que se refleja, fundamentalmente, en el léxico*". Eta jarraian adierazten du nola osatzen diren "hizkuntz komunitate" horiek: "*Los miembros de un periódico como componentes de una comunidad lingüística lo son en tanto que reflejan su pertenencia en las páginas de ese periódico. Pero no puede olvidarse que cada uno de ellos posee otras conexiones fuera del mundo del periódico y que entre el periódico y sus otros mundos han de establecerse intercambios, mezclas, 'contagios' que enriquecen y condicionan las manifestaciones lingüísticas. Y mucho más si, como no es infrecuente, el periodista exterioriza verbalmente su mundo particular en manifestaciones lingüísticas ajenas al periódico: el caso de periodistas que alternan su función periodística con otra profesión*".

Euskal kazetariak, jakina, ez ziren kazetari profesionalak, ez behintzat gaur egun duen esanahiaz; gehienak erlijiosoak ziren, jesuitak, apaizak, eta abar. Ogibide liberaletako jendea ere bazegoen: sendagileak ("Larreko"ren kasua), abokatuak, arkitektoak (*Txistu* komikia 1927an martxan jarri zutenak). Kultur mailak berdintsua izan behar zuten, eta ideologia antzekoa. Baina *Argia* eta beste euskal aldizkari batzuetako idazle gehienak "hizkuntz talde" edo "komunitate" bat osatzen duteneko gure hipotesia indartzen du B.M. Hernandok eranstean duena: "*El nivel máximo de identificación lingüística con el registro que podemos llamar estándar del LP [lenguaje periodístico] de un periódico determinado está en el apartado 1, en los textos no firmados y sin pie de agencia*". Arlo horretan Hernandok aipatzen ditu sinadurarik gabeko testuak, testu laburrak, editorialak, "suelto" eta "gacetillak": "*Técnica y psicológicamente, el autor material de tales textos se inviste de la representación responsabilizada del conjunto del periódico*", dio.

Gure ustez, aldizkarietan (baita euskal aldizkarietan ere, dudarik ez) agertutako testurik gehienak pentsamolde trinko baten irudiak dira, eta horregatik ausartzen gara esaten laguntzaileez gain bazegoela *Argian* testuei batasuna ematen zien talde bat, are gehiago 1932ko urrian 'irarkola' edo inprimategia eta 'banakola' edo bulegoa bereizi egin zituztela kontuan hartzen baldin badugu; lehena Okendo kalean, 7an, zegoen, eta bigarrena Deun Iñaki'ren liburutegian, Avenidako 32.ean. Urte hartako ale batean erakusten digute nolako zen bulegoa eta nola egiten zuten lan han zeudenek. 1991ko udan Zarautzeko bere etxean Inazio Eizmendi *Basarri*ekin izandako elkarrizketa batean, bertsolari eta kazetariak, 30.eko hamarkadan hain zuzen *Argiaren* orrialdeetan idazten hasi zenak, baieztatu zigun nola herrietatik urgazleek (baserritarrak kasu askotan, berak zioenez) bidalitako testuak Donostiako bulegoan zuzentzen ziren, idazkera batzeko asmoz edo.

Herrietako urgazleei buruz, gehienetan ez ditugu beren izenak ezagutzen, eta ez dago bere nortasuna zein zen jakiterik. Hala ere, *Euzkori* dagokionez, badakigu euskal berriren bat

---

36 Hernando, B.M., 1988, "Hipótesis de trabajo para una lexicometría del lenguaje periodístico", *Revista de Ciencias de la Información*, Universidad Complutense, Madrid, 93-106.

bazegoela: “‘Kapatxu’ gure idazle bizkorrak astian-astian erri onetako albisteak Euzko’ra bidaltzia euzkeldun-barrri gazo oneri leporatzen deutso (...)”<sup>37</sup>. Kapatxu hark Mundakatik bidaltzen zituen berriak. Ezer gutxi dakigu, bestalde, herrietako urgazleei buruz. Baina, euskal urgazleei buruzko ataltxo hau bukatutzat eman baino lehenago, emakumeen garrantzia (garrantzi erlatiboa, bada ere) azpimarratu nahi genuke. Euskal Herriko erdarazko kazetaritzan ez bezala, emakume batzuek euskaraz idatzi zuten. Fenomeno hau E.A.J.rekin zerikusia zuen Emakume Abertzale Batzak sortzen lagundu zuen. Badakigu Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian emakume batzuk berriak, ipuiak eta denetariko testuak bidali zituztela euskarazko aldizkarietara. Izenak, berriro ere, ez dakizkigu, eta nortasuna ere ezezaguna egiten zaigu. Badaude, ordea, bizpahiru adibide, aipatu nahi genituzkeenak. Bata Robustene Mujika *Tenerena* da. Deban jaio zen 1888an, eta Gipuzkoako herri honetan hil zen 1981ean. Emakume Abertzale Batzarekin lotua, 1935ean Gipuzkoako presidente izendatu zuten. 1923an Oiartzungo Euskal jaietan hitzaldi bat botu zuten. Hizlari ona, idazle trebea, liburu batzuk idatzi zituen: antzezlanak (*Gogo-oñazeak* eta *Gabon*, 1935ean), olerkiak (*Aberriaren udaberria*, *Ama*, *Arno’ko kurtza* eta *Miren Itziar’ri idazkiak eta olerkiak*). Kazetari nekazina ere izan zen, bere testuak *Euskal Esnalean*, *Euzko-Deyan* (1921), *Gure Herrian*, *Euzkorean*, *El Dían*, *Euzkadin* eta *Argian*, besteak beste.

Beste kasu bat Gabilondo emakumearena dugu, Mungiakoa, *Egunan* idazten zuena. *Egunaren* lehen zenbakitik hasi zen idazten. Gero ere “Euzko emakume maitia” eta “Euzko emakumiaren gixarte-lanak” izenburua zeramaten atalak idazteari ekin zion. Bertan adierazten zituen zeintzuk ziren Euskadiko emakumearen zereginak: “*Euzkadi euzkaldundu*”, “*euzko ekandubak biztu*” eta “*semiaren adimena aberastu*”. Zeregin horiei beste bat erantsi behar zitzaien: “*Otoi eta lan Jaungoikua eta Aberrija aldezen diñardugun gudarijon alde*”. Azkenik, Gerra ondoren hasi zen idazten (batez ere ipuiak, kontakizunak, olerkiak eta testu literarioak) Errose Bustintza, *Kirikiñoren* iloba. Erbestean 1939an argitaratutako *Euzko Endan* agertu ziren bere lehen testuak.

## 2.2. Irakurleak

Komunikabide guztietan bezala, bi gauza kontuan hartu behar ditugu: lehena, irakurlego jakin bati, bere ezaugarriak dituen irakurlego bati satisfazioa emateko sortzen direla. Horren arabera, komunikabide bat lortu nahi duen irakurlegoaren ezaugarrietara moldatu behar da. Komunikabide horrek lortuko du arrakasta baldin badaki nolako irakurlegoa, entzulegoa edo ikuslegoa duen. Irakurlego, entzulego edo ikuslegoarekin batera, komunikabideak ere aldatu beharko du, baina bakarrik egingo du lehenago publikoa aldatzen baldin bada. Beraz, teoria honen arabera, publikoa da komunikabide baten ezaugarriak inposatzen dituen, eta ez alderantziz. Lehenik irakurlegoa da, gero aldizkaria sortzen da, eta irakurlegoak aldizkaririk tira egiten du.

Bestalde badago beste teoria bat, kontrakoa hain zuzen dioena: komunikabideak hautatzen duela bere publikoa, mugatu ere egiten duela, eta neurri handi batean behintzat, nahi dituen ezaugarriak ezartzen dizkiola. Komunikabideak “informatzen” du, hau da, “forma” ematen dio publikoari, eratu egiten du bere moldera. Ez bata ez bestea ez zaizkigu guztiz ko-

---

<sup>37</sup> *Euzko*, 1932/VIII/20, 4. zenbakia, 10. orrialdea.

mentzigarriak iruditzen. Uste dugu hasieran publiko jakin bat egon behar dela, komunikabide egokirik ez duen publiko bat, horregatik komunikabideak sortzen dira, sortzen dituztenek uste dutelako publiko bat, bere publiko berezia, badutela. Beraz, publiko horrexerri zuzenduta dago komunikabidea. Gure ustetan, dinamika bikoitza edo dialektika hori -historian eta gizartean hainbatetan ikusten duguna- argi agertzen da euskal komunikabideen historian. Dударik gabe, *Argia*, adibidez, saiatzten da lortzen irakurleko jakin bat, batik batik Gipuzkoako nekazariek osatzen zuten hura hain zuzen ere, hasiera-hasieratik bereganatu nahi du gizatalde hura. Baina hasiera-hasieratik ere ezaugarri ideologikoak, pentsamoldeak, idazkera bat ere, transmititu nahi die<sup>38</sup>. Aurrerantzean, irakurleko berriak lortzen saiaturiko ziren: umeak, euskaraz irakurtzen ari ziren haiek... Argi dago irakurleko berrien sorrerarekin batera, komunikabidea, aste-karia saiatzten dela moldatzen, baina, aldi berea, irakurleko berriak, aurrekoekin egin zuen legez, moldatzen saiaturiko zen. Lehenengo *Argian* esaten digutenez, sortzaileek Euskal Herrian ikusten zuten hutsune bat betetzera zetozen, euskaldunentzako ia aldizkariarik ez egoteak uzten zuten: *"Euskalerrriak ¿ez aldu euskerazko papertxo bat meretsi? Euskaldun geyenak ziaroko gurtzetan gaude gai ontaz. Utsune ori betetzera, dator gure lana"*.

*Argiak* euskarak kultur gauzetarako balio duen ala ez ezбайдan zegoenean sortzen da. Donostiako astekaria sortu zutenen iritzia, noski, edozertarako balio zuelakoa da: *"Esan oi da, euskerazko gogo-lanak alperrikakoak dirala, euskera ortarako gai ta zoar ez dalako. Orixe dasakenerari, oraintxe alderdi egokiya datorkiyoke, gure lantxoak ikusi-ta, bere iritxi makurra ayenatzeko"*.

Haien betebeharra, aldiz, askoz ere umilagoa zen, herriko euskaldunei heldu nahi baitzien: *"Gure lana beragokoa; lurraren axalean ibilli nai giñake, oraindik ortxen daude ta euskaldunen abarka eta mantarrak; bañan astero-astero irakurri ezkeru gure papertxo au, gure irakurle maiteak asko ikasi dezakete, uste gabeka ta pittin-pittinka eragin oi diralako nagusi izena daramate gizarteko jakinbide guzik"*<sup>39</sup>.

Euskaldun alfabetatugabeak alfabetatzea zen beren asmorik nagusitariko bat: *"Irakurtzen eta idazten ikasteko alegin guziak egin bear dira. Ta ez ikasi bakarrik: ikasi eta gero, asko irakurri ta asko idatzi. Batez ere... irakurri... irakurri... euskeraz gero ta gauza politagoak idazten dira-ta"*. Gipuzkoako herri nekazarietako euskaldunek osatzen zuten *Argiaren* irakurle-goa. Momenturik egokienean sortu zen aldizkaria: 20.eko eta 30.eko hamarkadetan euskalduntze eta alfabetatze prozesua gorantza zihoan. Irakurleko hark komunikabideak behar zituen, euskarazko informazioa, eta *Argiak*, beste aldizkari batzuek bezala, eskaini zien. Baina, aldi berean, irakurleko berri bat sortzen ari zen, gizatalde garrantzitsu bat. *Argiak* lagundu zien alfabetatzen, baina euskaraz irakurri eta idazteko gauza izaten hasten zen euskaldungo berriaren ezaugarriak kontrolatzen saiatu zen. Besteak beste, gizatalde hura pentsamolde jakin bat jasotzeko egokia zela konturatu ziren.

Hitzegin dezakegu, bada, irakurleko berri batez? Gure ustez, bai. Industrializazioa eta komunikabideak heldu arte, eliza eta pulpitoak ziren nekazarien informaguneak; han apaizek zeinak euskara idatzi eta kultoaren jabe baitziren- beren pentsamoldearen arabera predikatzen zuten, euskal herriari pentsamoldea huraxe igortzen. Haren indarra herrietan zegoen. Industrializazioarekin batera, antzinako ezaugarri batzuen galera edo galtzeko arriskua ere bator. Euskara bera ere mehatxatuta dago. Elizgizonek ikusten dute nola bere publikoa gal-

38 Ikus DIAZ NOCI, Javier, "Gerra aurreko euskal kazetaritza eta hizkuntz ereduak", *Anuario del Seminario Julio de Urquijo*, 1995.

39 *Argia*, 1921/IV/24, 1. zenbakia, 1. orrialdea.

duz doan. Hiri eta herri haundietan, atzerritar langileen etorrerak alde batera uzten du euskara, baina ez hori bakarrik, euskararekin batera transmititzen zen pentsamoldea ere indarra galduz doa. Komunikabide berriak datoz. Horien kontra jokatu beharra dago.

Euskaldungoa alfabetatzeko, euskaraz irakurtzeko gai izan arte prestatzeko beharra ere sortzen da. Alde batetik, beste komunikabideen kontra (elizgizonen pentsamoldearen kontra-koak) jokatu beharrean aurkitzen dira, eta beste alde batetik, komunikabide horietan aprobetxatzen dituzte irakurlegoa alfabetatzeko eta prestatzeko. Bi eginbehar aurkitzen ditugu, bi asmo: bata, ideologia transmititzea, eta bestea, irakurlegoa ideologia hura jasotzeko moduan prestatzea.

30.eko hamarkadan, gero eta euskaldun alfabetatu gehiago zegoen, gero eta ume gehiagok euskaraz irakurri eta idazten zekiten edo ikasten ari ziren. Ume euskaldunak izango ziren bereganatu nahi izan zuten irakurlego berria, eta komunikabide berriak eskaini zizkieten, komikiak esaterako. Heziketa ere ezinbestekoa zen. 30.eko hamarkadan badaude informazio orokorreko aldizkariaren beharra aldarrikatzen duten idazleak, irakurlegoak beste informazio aurreratuago bat behar zuelako. Justo Mokoroak dio 1936an argitaratutako *Genio y lengua* liburuan: *“De los dos semanarios EKIN y ARGIA, el uno es primordialmente doctrinal-religioso y lleva la “información general” como un accidente; y el otro también está muy lejos de poderse llamar “un órgano de información” -como no se pretenda confundir la “información” con la “gacetilla o crónica menuda” de corresponsales “aficionados”-; de donde resulta que ni uno ni otro deben bastar para colmar las aspiraciones actuales de nuestro público; como, en efecto, no las colman, a juzgar por el favor creciente de los periódicos eraldunes, llámense o no vascos”*<sup>40</sup>.

Gure ustez, aldiz, *Argiak* lortu zuen Gipuzkoako euskal irakurlegoa prestatzea, irakurlego alfabetatu berri baten sorrera ikusi eta haren eskaerak bete zituelarik; baina, noski, haien modura egin zuten, nahi zuten informazio mota argitara emanez, nahi zuten irakurlegoa eratuz. Garai hartan aldaketa asko sortu ziren Euskal Herrian; modernitateari aurre egin behar izan zioten eliz gizonak. Baliabideak asmatu zituzten. Errepublikak heldu orduko, bazeukaten ideologia nazionalista -ideologia hura baitzen haien interesak hobeto defendatzen dituen- jasotzeko prest zegoen gizatalde haundi bat. Bazeuzkaten ere hori lortzeko komunikabideak. Beharbada, Gerra heldu zenerako beste aldaketa batzuk beharrezkoak ziren, baliteke beste komunikabide aurreratuago batzuk, informazio orokorrekoak, edota zeuden komunikabideak hobe- tuz irakurlego berriaren eskariak betetzeko garai egokia izatea.

### 2.3. Irakurle kopurua

Euskarazko aldizkariaren irakurleen tipologiaz gain, hau da, kalitate alderdiarekin batera, badago beste alderdi bat, kopurua, ikutu beharrekoa. Komunikabide idatzien historia egiterakoan, arazo metodologikorik haundienetariko bat izaten da zenbat ale inprimatu eta saltzen ziren jakitea; gaur egun ere, zaila izaten da egunkari eta aldizkariaren tirada zehatza ezagutzea. Tirada ezagutu arren, berehalaxe beste arazo bat sortzen da: zenbat irakurle du aldizkariak? Normalean, “ratio” batzuen arabera kalkulatu da irakurle kopurua, argitaratutako aleak zenbat diren jakinez gero. Hala ere, “ratio” horiek ez digute beti egia esaten. Euskarazko kazetari-

---

40 Mokoroa, 1936, 66.



tzan ere berdin gertatzen da. Egia esan, oso datu zehatz gutxi dakigu Hego Euskal Herriko aldizkariet buruz: *Argiarenak*, *Euzkori* buruz zeozer, eta *Egunari* buruz ere zerbait, lekuko bidez. Ipar Euskal Herrian datu zehatzagoak daude, baina lehengo garaiari dagozkio. Pierre Tauziak jakinarazi zituen bere testu batean<sup>41</sup>. 1909an Baionako apezpikua zen Mgr. Gieurek agindu zuen inkesta hori egitea. Horren arabera, *Eskualdunaren* nagusitasuna nabari agertzen da euskal aldizkarien artean, oso urrun errepublikazaleen kazeta elebiduna zen *Eskual Herriatik*. Une horretan, hain zuzen ere, Hiriart Urrutyk *de facto* zuzentzen du Baionako astekaria, apezpikuak hala agindua, nahiz eta N. d'Arcangues izan *de iure*ko zuzendaria, eta, betiko kontserbadurismoa alde batera utzi gabe, Konstituzioaren aldeko bidean sartzen da. Une hartan ere hasten da lortzen *Eskualduna* euskaldunen artean bere nagusitasuna, berezko pentsamolde politiko partidistarik gabe Iparrean euskaldunen indarrak bilduko zituena. Inkestaren arabera, 1909an astekariak ia 6.000 ale saltzen zituen astero. Laffittek ematen dituen xifren arabera, 1889an 950 erosle zituen, 1890ean 1.200, eta 1891n 1.300. Louis Etcheverryk aldizkaria uzten duenean, 1904an, 1.700 erosle zituen. Hiriart-Urrutyk hartu eta *Eskualdun ona* izenburua eman ondoren, 1905ean 5.000 zituen. Hiru urteren buruan bere gailurrera ailegatu zen 7.000 erosle izatera<sup>42</sup>. 1918tik Jean-Blaise Adéma kalonjearen zuzendaritzapean. Munduko I. Gerrak sortutako eskasia garaiaren ondoren, *Eskualdunak* berriro bere lehengo dizitira berreskuratu zuen 20.eko eta 30.eko hamarkadetan. Garai honetan *Eskualdunaren* kutsua informatibo da. Nolabait, Hego eta *Argiarekin* pareka daiteke: biak astekariak ziren, lau orrialde izaten zituzten, eta erlijioa, euskara eta nekazaritzari garrantzi handia ematen zioten. Atalei dagokienez ere, parekotasunak nabariak ziren: *Eskualdunaren* lehen orrialdean "Berriak" (mundu guztikoak) eta "Ebanjelioa" atalak zeuden. Testurik esanguratsuenak, astekariaren bultzatzaileen pentsamoldea islatzen zutenak, lehen orrialdean egoten ziren. Hala ere, 20.eko eta 30.eko hamarkadetan ez da hain argi erakusten pentsamolde hori, eta *Eskualduna* gero eta informatiboago bilakatzen da. Bigarren eta hirugarren orrialdeetan Euskal Herriko berriak agertzen dira, hiru ataletan banatuta: "Laburdin", "Baxenabarren" eta "Ziberoan": bertan, besteak beste, Baiona, Hendaia, Senpere, Donibane Lohitzune, Hazparne, Miarritze, Urrugne, Arnoba, Ustaritz, Donazaharre, Bustine-Iriberry, Aingille, Donapaleu, Garruze, Donibane Garazi, Eyheralarre, Larragne, Lacarry, Altzay, Barkotxe, Maule, Arrokiaga, Miskildi, Mendikota, Landibarreko albistek irakur daitezke.

Adémak *Eskualdunaren* zuzendaritza 1924an utzi zuen. Elizaren menpe zegoelarik, *Eskualdunaren* zuzendaritza beste apaiz baten eskuetara joan zen: Jean Saint-Pierre. Baionako apezpikuaren idazkaria zen. "*Artekari ona (...) batasunaren segurtatzeko*", Lafitteren ustez<sup>43</sup>, bere karguan hasi zenetik astekaria berritu egin zuen. Garai hartako idazleak, besteak beste, Jules Moulier *Oxobi*, Louis ApesteGuy, Jean Etchepare, Louis Dassance, Jean Barbier, Michel Iriart ziren, hau da, Ipar Euskal Herriko hoberenak. Saint-Pierrek eta hurrengo zuzendariak, Domingo Soubelletek, *Eskualdunaren* garairik hoberenetarikoak lortu zituzten: "*Iratzartzeko memento ona zen: orhoit 'bloc des gauches' delakoak nahi zuela erlisioneari berriz jazarri, eta behar zitzaiola ihardoki. Gudu-aro horrek emaiten zion kazetari bizitasun berezi bat, kasik Eskualdun Onaren denboran bezala*"<sup>44</sup>. Gero eta irakurle gehiago lortzen ari zen Jean Saint-Pierre 1930ean apezpiku izendatu

41 TAUZIA, Pierre, "La presse dans les Basses-Pyrénées d'après l'enquête diocésaine de 1909", *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 130. zenbakia, 1974.

42 Aipatu artikuluan.

43 Laffitte, P.: "Eskual astekariaren ixtorioa", *Gure Herria Almanaka*, 1971, 32. orrialdea.

44 Ibidem.

eta Afrikara bidali zutenean<sup>45</sup>. Astekariaren gorakada egiten jarraitu zuen hurrengo zuzendariak, Domingo Soubeletek, artean Baionako apezpikuaren idazkaria zena. Bere zuzendaritzapean *Eskualdunak* irakurle gehien lortu zuen, 8.000. Idazle onak zituen: Dirassarrek "Pilotaz" atalean idazten zuen, *Oxobk* eta Jean Elissalde *Zerbitzark* artikuluak; iritzi-artikuluez hurrengo zuzendaria izango zena, Xalbat Arotçarena arduratzen zen. Erretore batzuek beren herrietako berriak bidaltzen zituzten: Iturbidek, Milafrankako Etcheverryk... Louis Dassancek nekazaritzari buruzko gaiak lantzen zituen, Pierre Laffitte ere hortik zebilen.

Hego Euskal Herrian, bestalde, esan bezala datu zehatzenak *Argiarenak* dira, beraz, hauxe izango da ikertuko dugun lehen aldizkaria.

*Argiaren* kasuan, zorionez, badaude datu zehatzak, beraiek emandakoak hain zuzen. Zenbaiterainoko fidagarriak diren, hori ere ez dakigu; hala ere, besterik ez dagoenez eta pertsona desberdin batzuk aipatzen dutenez, sinistu ere egin beharko dugu. J.M. Irurek 1930eko ekainaren *Euskal-Esnalean* Bittor Garitaonaindiari egindako omenaldian dio 7.000 ale baino gehiago argitaratzen zituztela.

Badirudi Garitaonaindiak eta *Argia* atera zutenean hainbeste saltzea ez zutela espero, baina 1928an 7.000 astekari saltzen zirela.

Ezin dugu jakin, berriz, zenbat aldizkari kaleratzen zen lehenengo urteetan. *Argian* bertan agertzen den lehen erreferentzia zuzen eta zehatza 1924an aurkitzen dugu: "(...) *Astian 6.000 ARGIA zabaltzen dira: ARGIA bakoitza bost lagunek irakurtzen badute, 30.000 ARGIZale gera (...)*"<sup>46</sup>. Gaur egun irakurle "ratio" a saldutako aleko 3-4 dela pentsatzen bada ere -batez ere, "ratio" hori egunkariei dagokie-, baliteke *Argiako*en ustea zuzena izatea, astekariak irakurtzeko modua egunkariak irakurtzekoa baino desberdina da. Dena den, garai hartako beste komunikabide batzuekin gonbaratuz, asko da: Bizkaiko *La Lucha de Clases* astekariak, esate baterako, Errepublika garaian 3.000 ale inguru saltzen zituen<sup>47</sup>. *La Tarde* egunkariak 5.500 ale inguru banatzen zituen, Donostiako *El Diak* 1936an 10.000-11.000 ale, eta *El Pueblo Vasco* urte berean 7.000/8.000 ale<sup>48</sup>. *Argiak* bere tiradarik haundiena lortu zuen Errepublikan, Estatutoaren aldeko kanpainia zela eta: "*Lengo asteen Estatuto alde egin gendun ARGIA'ren zenbakiari guk uste gendun baño arrera obea egin diote Estatuto zaleak (...). Pozik jakin erazten dizutegu ordea batetik eta bestetik zetozkigun eskariari erantzun al izateko zenbaki artatik 20.000 iyeki egin bear izan genitula*"<sup>49</sup>.

---

45 1927an Miguel Inchaurren Arriaran Iruñaiko apaizak bertako seminarioan 1926-27 ikasturtearen hasieran irakurritako hitzaldian biziki gomendatu zien apaiz-gaiei eta apaizei berei ere zenbait aldizkari irakurtzea: *Zeruko Argia, Jaungoiko-Zale, Gure Mixiolaria, Irugarrenko Frantziskotarra, Fedearen Hedameneko Urtekaría*, aldizkari erlijiosoak, eta erlijioso ez ziren aldizkarien artean (nahiz eta kutsu erlijioso haundia izan), *Argia* eta *Eskualduna*: "*Semanario católico vasco-francés, leído por todos los euskaldunes de allende el Pirineo, es uno de los mejores baluartes de la Religión, las buenas costumbres y en euskera en este País. Está redactado en un vascuence facilísimo. Recomendamos vivamente a los reverendos párrocos y familias del Baztán, Erroibar, Aezcoa, Salazar y Roncal. Para el clero vasco en general, también*" (*La Iglesia y el Euskera. Obligación de hablar al pueblo en su lengua nativa y de cultivarla*, Iruña, 1927).

46 *Argia*, 1924/N/4, 154. zenbakia, 1. orrialdea.

47 Miralles, R., 1986, "'La Lucha de Clases': Estudio de algunos aspectos de un periódico socialista vasco durante la II República", *La Prensa de los siglos XIX y XX. Metodología, ideología e información*, E.H.U./U.P.V., Bilbo.

48 Granja, J.L. de, 1986, "La prensa nacionalista vasca", *La prensa de los siglos...*

49 *Argia*, 1933/XI/5, 657. zenbakia, 2. orrialdea.

Mutriku bezalako herri batean 145 ale saltzen ziren astero, 1931n hango korrespondentzialak dioena ontzat ematen badugu: "*Uri ontan zerbait ARGIA asteroko euskaldun au saltzen da igandero adezkariak (sic) saltzen ditu egun ta bederatzi (109) eta arpidetuak dira gañera ogeita amasei beraz guztira gure erri onetan saltzen dira 145 ARGIA astero. Aurten Egutegiak saldu dira larogeita iru (...)*"<sup>50</sup>. Mutriku zen, 1928an argitaratutako grafikoaren arabera, *Argia* gehien irakurtzen zuen herrietako bat. Datu horiek ezin interesgarriagoak dira: irakurle-en kopuru zehatza ematen ez badigute ere, Gipuzkoako herrietan euskaldunen portzentaia zenbatekoa zen eta horren arabera espero zituzten irakurleen portzentaia zein zen badakigu. Grafiko horren arabera, *Argia* Gipuzkoako ehun herritan gutxi gora-behera banatzen zen. Gainera, Bizkaia, Araba eta Nafarroako zenbait tokitara ere heltzen zen *Argiak*.

1928ko datuen arabera, gutxi gora-behera gipuzkoarren %2k irakurtzen zuen *Argia*, eta aldizkaria egiten zutenen ustez, %4,5k irakurri behar zuen. Asko irakurtzen zen Deban, Mutriku, Zestoan, Zumaian, Zarautzen, Usurbilen, Pasaian, Hernanin, Legazpin, Leaburun, Itsasondan, Albizturren eta Errezilen. Herri haietan euskaldun portzentaia oso altua zen, %60 baino altuagoa. Hala ere, *Argiak*oen aurrekontuak bakarrik zazpi herritan betetzen ziren: Mutriku, Deban, Azkoitian, Azpeitian, Usurbilen, Zarautzen eta Itsasondan; Mutriku, Azpeitian, Azkoitian eta Itsasondan %80 baino gehiago euskaldunak ziren. Beste hirutan, %60 baino gehiago. Herri industrializatueta, aldiz, *Argiak* oso gutxi saltzen zuen, nahiz eta euskaldun asko egon, Eibarren adibidez. Arrakastarik haundiena Deba kostaldeko herrietan eta Erdiko herri nekazarietan zetan antza (ikus erantsitako mapak).

Banaketari dagokionez, badugu lekukotasun bat: Inazio Eizmendirena, Zarautzeko kasurako. Berak dioenez, Dolores izeneko emakume batek *Argiaren* aleak jasotzen zituen ostiraletan. Jakin badakigu astekaria larunbatetan saltzen zela. Baserritarrek erosten omen zuten Zarautzen behintzat ostiraletan, merkatu bat zelako. *Basarrik* kontatu digunez, baserritarrek irakurtzen zuten *Argia*, eta beraiek ziren astekarira testuak eta berriak bidaltzen zituztenak. Gero, Donostiako bulegoan, Artzeluzek, Zubimendik eta beste batzuek testuak zuzendu eta hizkuntzaren aldetiko batasuna ematen zieten.

*Euzkok* ez zuen *Argiak* beste arrakastarik lortu. Gutxi saltzen zelako argitaratzeari utzi zioten. *Euzkon* bertan aurkitzen dugu tiradari buruzko aipamen bakarra: "*¿Zenbat Euzko euzkal-izparringi aberrtzale saltzen dira Bilbao'ko 30.000 euskaldun artian? Berreun (200) baño ez, eta au lotsagarrijetan-be lotsagarrija da (...)*"<sup>51</sup>.

*Egunari* buruz badakigu gauza gehiagorik. Iturria egunkaria bera eta bizirik geratzen diren erredaktoreak ditugu. Egunkariaren arabera, 20.000 ale inguru egiten ziren. 28. zenbakian 18.000 mila ale inprimatzera ailegatu direla diote. 38. zenbakian 20.000 ateratzeko helburua lortu dutela diote. Eta beste helburu bat jartzen dute: 22.000 mila.

Hala ere, badirudi datu hauek exajeratuak direla. Reizabalen ustez, ezinezkoa zen Bilbon hainbeste ale saltzea, Bilbo ez baitzen hiri euskaldunik, nahiz eta gipuzkoar euskaldun asko han egon<sup>52</sup>. Joseba Agirreazkuenagak ere dudatan jartzen du<sup>53</sup>, eta *Egunako* erredaktore-bu-

50 *Argia*, 1931/II/1, 3. orrialdea.

51 *Euzko*, 1933/III/4, 32. zenbakia, 2. orrialdea.

52 Reizabal, G., 1973, *Eguna, único diario en euskera (Bilbao, 1937)*, Nafarroako Unibertsitateko Informazio Zientzien Fakultatean aurkeztutako tesina argitaragabea.

53 Agirreazkuenaga, J., 1989, "Prensa euskaraz: 1936.eko Gudaldian eta Lehen Euskal Gobernuaren garaian", *Jakin*, 50, zenbakia.

ru zen Agustin Zubikararekin hitzegin ondoren, 10.000 baino ez zutela argitaratzen dio. Egunkaria salgai bazen ere, 15 zentimoko salneurrian, badirudi ale gehienak dohainik banatu zirela frenteko gudarien artean.

## 2.4. Aldizkatasuna

Euskarazko kazetagintzaren helburua, 1929tik behintzat, euskara hutsezko egunkari bat ateratzea izan zen. Ezina izan zen Gerra arte. Hala ere, argitaratu ziren euskal egunkarirako urratsak edo frogak izan zirenak: *Argia*, zeinetan oinarritua 1929ko proiektua egunkari bihurtu nahi zuten, eta *Euzko*. Biak astekariak ziren, Baionako *Eskualduna* bezala. Zornotzako *Ekin* ere, aurreko *Jaungoiko-Zale* hamabostekariaren bilakaera ere, astekaria zen, eragin haundia goa izateko asmoz edo. Ez zaigu kasualitateko gauzarik iruditzen euskara hutsezko egunero-ko kazetagintzatik hurbilen zeuden aldizkariak, aldizkari informatiboak gainera, astekari izatea. Horren zergatia aztertzen saiatuko gara. Ez dugu orduan hemen kontuan hartuko aldizkari kulturalak ez eta erlijiosoak, bere gaia eta testuen luzaera eta motagatik aldizkatasun txikia goa behar zutenak.

*Argia* edo *Ekin*en kasuan, zergatik asteen behingo aldizkatasuna? Lehendabizi, ereduek hala proposatzen zutelako: eredu horiek *Eskualduna*, *La Croix de Dimanche* eta *La Veu de Catalunya* astekariak ziren. Gainera, periodizitate edo aldizkatasun horrekin gauza batzuk lortzen ziren: bata, herrietatik bidalitako berriak freskotasuna ez galtzea (egunkaria izanez gero, berandu helduko ziratekeen), eta puntu honetan kontuan hartu behar dugu *Argia* eta *Ekin* egiten zuten inprimategiek beste gauza batzuk ere egiten zituztela, hasieran behintzat *Argia* beste ekoizpen bat baino ez zen. Beste gauza bat lortzen zuten astekaria izateaz: banaketa hobeto egin. Badirudi igandero ateratzen bazen ere ostiralean eta larunbatean hasi zirela banatzen. Errepideak eta bideak ez ziren gaur egungoak bezain onak, eta kotxeak ez ziren oraingoak bezain azkarrak.

Baina abantaila horiek guztiak hilabetekaria edo hamabostekaria izaten ere lor zitezkeen. Orain azalduko duguna, aldiz, ez. Kontuan hartuz zer nolako irakurlego zuen euskara hutsezko prentsak, norentzako aldizkariak izaten ziren, konpreni daiteke egunkaria izatea gehiegikeria izango zatekeela; baserriar alfabetatugabeak ezin izango zukeen egunero -*Argia* kaleratzen hasi zenean, behintzat- euskarazko aldizkari bat irakurri. Asterokoa baino aldizkatasun haundiagoak ere gehiegizko galera ekarriko zukeen. Euskaraz irakurtzeko zaletasuna eta ohitura pizteko hamabostean behin edo hilean behin aterako zen aldizkaria ez zuketean gogoan hartuko. Nolabait, euskaraz idatzitako aldizkari horrek eguneroko gauza izan behar zuen, egunero irakurri behar zuen baserriarrek.

Gaur egungo metodoek esaten digunez, zuzen eta artez zebiltzan. Egunkari bat, normalean, ateratzen den egunean bertan irakurri ohi da, oso gutxitan biharamunean eta batere ez handik hiru egunetara. Madrileko Informazio Zientzien Fakultateko irakaslea den Emilio M. Ramos-ek gure ustez ezin hobeto adierazten zuen astekariak irakurtzeko modua *C.I.N.CO.* aldizkariaren bigarren zenbakian, 1989ko apirilean, "Audiencia de revistas semanales" zeritzon artikuluan: "*Una revista, en este caso semanal, tarda varias semanas en morir por completo. Es importante tener en cuenta esta idea para aceptar el número medio de lectores por ejemplar que puede acumular una revista a lo largo de su vida, cifra que, en general, para todas las revistas suele ser muy alta (...). En la última semana habrá lectores que estén leyendo la re-*

*vista de esa semana, otros lectores están leyendo la revista de la semana anterior, otros la de la semana anterior a la anterior y así sucesivamente*<sup>54</sup>.

Ondo aprobetxatu zuten ezaugarri hori *Argiak*oek, euskaraz irakurtzeko ohitura asmorik inportanteenetariko bat baitzen. Horregatik ez da harritzekoa 1925ean ziotena: "*Lagundu, bada, guztiok, zuen buruan zintzotzat badaukazute, ARGIA zabaltzen, irakurle bakoitzak beste irakurle berri bat gutxienez egin dezala. ¿Zure euskerarenganako maitasun eta gogo- indarrak ez al dira orrenbestarano irixten?*", eta lehenago, 1921ean: "*Asteroko ARGIA guziak gordetzeko usterik ez badezu, zabaldu lagunen artean, zerorrek irakurri ondoren*". Hori ez zatekeen posible izango egunkaria izanez gero. Irakurlegoa egunero euskaraz irakurtzeko prest zegoela ikusi zutenean, euskal egunkari bat ateratzen saiatu ziren 1929an. Arazo ekonomikoak zirela medio, ez zen lortu, eta, dakigunez, lehen euskara hutsezko egunkaria Gerra garaian agertu zen.

## ERANSKINA

### ***Argian 1928an emandako datuen arabera, euskaraz irakurtzeko ohiturak Gipuzkoan***

- |                  |                  |
|------------------|------------------|
| 1. Abaltzisketa  | 24. Bidegoian    |
| 2. Aduna         | 25. Zegama       |
| 3. Aizarnazabal  | 26. Zerain       |
| 4. Albiztur      | 27. Zestoa       |
| 5. Alegia        | 28. Zizurkil     |
| 6. Alkiza        | 29. Deba         |
| 7. Altzo         | 30. Eibar        |
| 8. Amezketa      | 31. Elduain      |
| 9. Andoain       | 32. Elgoibar     |
| 10. Anoeta       | 33. Elgeta       |
| 11. Antzuola     | 34. Eskoriatza   |
| 12. Arama        | 35. Ezkio-Itsaso |
| 13. Aretxabaleta | 36. Hondarribia  |
| 14. Asteasu      | 37. Gaintza      |
| 15. Ataun        | 38. Gabiria      |
| 16. Aia          | 39. Getaria      |
| 17. Azkoitia     | 40. Hernani      |
| 18. Azpeitia     | 41. Hernialde    |
| 19. Beasain      | 42. Ibarra       |
| 20. Beizama      | 43. Idiazabal    |
| 21. Belauntza    | 44. Iruerrieta   |
| 22. Berastegi    | 45. Irun         |
| 23. Berrobi      | 46. Irura        |

---

54 Ramos, E.M., 1988, "Audiencia de revistas semanales", *C.IN.CO. (Cuadernos de Investigación en comunicación)*, 2. zenbakia, 26.

47. Itsasondo
48. Larraul
49. Lazkao
50. Leaburu-Gaztelu
51. Legazpi
52. Legorreta
53. Lezo
54. Lizartza
55. Arrasate
56. Mutriku
57. Mutiloa
58. Olaberria
59. Oñati
60. Oresa
61. Orio
62. Ormaiztegi
63. Oiartzun
64. Pasaia

65. Soraluze
66. Errezil
67. Errenteria
68. Leintz-Gatzaga
69. Donostia
70. Segura
71. Tolosa
72. Urnieta
73. Usurbil
74. Bergara
75. Billabona
76. Ordizia
77. Urretxu
78. Zaldibia
79. Zarautz
80. Zumarraga
81. Zumaia







